

OLENTZERO

(Wellerman-en airea)

Donibandar txiki ta handi
Idek begiak, entzun ongi
Musika adi hemen gaindi
Gure pausoak segi

Gora besoak altxa
Sua ingura ta dantza
Olentzero kanta
Orain etor dadila

Nahiz euria eta hotza
Olentzero hain da jatorra
Zabalduko du ikatza
Baionatik Bilbora

Errepika

Olentzero ikazkina,
Maitagarriak dirdira,
Basajaun eta Lamina,
Datozte herrira

Errepika

Indarra eta kemena
Balio ditu ordea
Tartaloren hondamena
Lortu du oztopatzea

Errepika

Zure zain denak hor gira
Bihozmin edo beldurra
Sentitzen dugun bakoitzan
Zu etor irrikitan

Errepika

Txapelpean mazelak beltz
Oinak arin ibilkera
Iduzki izpi ta amets
Dakarzkigu etxera

Errepika x2